# PASAIAKO UDALA

## HERRITARREN PARTE HARTZE PROZESUA

### PROCESO DE PARTICIPACION CIUDADANA:

## “ONDARTXO NOLA ERAIKI NAHI DUGU?”

¿CÓMO QUEREMOS DEFINIR ONDARTXO?

Agiri honek Pasaiako Udalak San Pedroko Ondartxoko gunearen inguruan herritarren parte-hartze prozesua aurrera eramateko egiten duen proposamena jasotzen du.

El presente documento recoge la propuesta que realiza el Ayuntamiento de Pasaia para realizar un proceso de participación ciudadana en torno al área de Ondartxo en Pasaia San Pedro.

## 0.- Sarrera - *Introducción*

Udala da Pasaiako herritarrak ordezkatzen dituen erakundea; hori dela eta berari dagokio etorkizunari lotutako erabaki estrategikoak hartzea eta baita ere, Pasaian beharrezkoak diren eraldaketa-prozesuak lideratzea. Alkatetzak badaki Udalaren ardura dela Pasaiako herritarrek etorkizuneko proiektu eta estrategiei buruz informazioa jaso, gaia aztertu, eztabaidatu, proposamenak egin eta erabakiak hartzeko formulak martxan jartzea.

El Ayuntamiento es la entidad que representa de cerca a la ciudadanía de Pasaia en el nivel institucional, por lo que le corresponde adoptar las decisiones estratégicas acerca de nuestro futuro y liderar los procesos de cambio que necesitamos. Esta Alcaldía es consciente de que el Ayuntamiento tiene que habilitar fórmulas que nos permitan a l@s pasaitarras contar con toda la información necesaria para analizar, debatir, proponer y decidir acerca de dichas estrategias y de los proyectos que se definan para nuestro pueblo.

Gure herria eraikitzeko erabaki-gunea Pasaian dago; hori dela eta, gure ustez, Pasaian bizi garen herritar guztien artean landu behar ditugu etorkizuneko proiektuak arrazoi garbi batengatik: zuzenean dagozkigun gaiei buruz erabakitzeko gaitasuna dugulako. Eta hau da gure herriaren etorkizuna herritarrekin elkarlanean arituz eraikitzeko dugun konpromiso irmoenaren oinarria.

El centro de decisión para la construcción del futuro de nuestro pueblo está en Pasaia y entendemos que lo debemos hacer entre todos y todas las pasaitarras. Por una sencilla razón: porque tenemos capacidad para decidir acerca de los asuntos que nos afectan directamente. Y esta es la base del compromiso firme que tenemos para construir ese futuro de manera conjunta con los y las vecinas.

Pasaiako Udalak pasaitarren parte hartzea sustatu eta bideratzeko helburua eta konpromisoa dauka. Herritarren parte hartzea bi norabideetan bideratzeko asmo sendoa: herriaren etorkizunerako giltzarri diren gaietan eta Udalaren gestioan, azkenean herritarrek kudeaketa hori berea egin dezaten. Horregatik sortu genuen Demokrazia Parte-hartzailearen Saila, honako helburu hauek lortzeko:

- Eztabaidaren kultura eta erabakiak elkarrekin hartzea sustatzeko ekintzak garatzea.
- Komunikazio-plan eraginkor bat martxan jartzea, herritarrei herriarekin zerikusia duten erabakiak hartzeko beharrezkoa duten informazioa helarazteko.
- Udal gestioa herritarrengana hurbiltzeko eta poliki-poliki bere egiteko estrategiak eta ekintzak garatzea.

El Ayuntamiento de Pasaia tiene el firme propósito y el compromiso de encauzar la participación de la ciudadanía pasaitarra. Una participación efectiva, dirigida tanto a cuestiones claves para el futuro del municipio, como a la propia gestión municipal para que la ciudadanía la haga suya. Esa fue la principal razón para crear el Área de Democracia Participativa, que cuenta con unos objetivos concretos:

- Impulsar y realizar acciones que fomenten una cultura del debate y la decisión compartida.
- Impulsar la elaboración de un plan de comunicación eficaz que permita a la ciudadanía contar con la información para poder participar en las decisiones acerca de su pueblo.
- Impulsar acciones y estrategias que permitan acercar la gestión municipal a la ciudadanía, para que la ciudadanía la haga suya.

Azken buruan, arriskudun inbertsioa baina gure etorkizunaren eraikuntzan sekulako

En definitiva, una inversión arriesgada pero de vital importancia y transcendencia para la

garrantzia eta munta duena.

Planteamendu hori aintzat hartuta, Pasaiako Udalak bertako herritarren parte hartzea lortzeko prozesua martxan jarri nahi du.

Prozesu hori bideratzeko tekniko-metodologikoki egin beharrekoak azaltzen dira proposamen honetan.

construcción de nuestro futuro.

Tomando en consideración este planteamiento, el Ayuntamiento de Pasaia, pone en marcha un proceso para lograr la participación de la ciudadanía de Pasaia.

En esta propuesta se recogen los contenidos técnico metodológicos para encauzar este proceso.

## 1.- Aurrekariak - Antecedentes

Urte luzeak daramatzate San Pedroko herritarrek Ondartxon kokatuta zeuden erabilera industrialak kentzeko borrokan.

80. eta 90. hamarkadetan Pasaiako egoera sozio ekonomikoa kezkatzeko modukoa zen. Gaur egun ere, industria eta arrantza sektoretan bizi dugun krisiarekin, antzeko egoera bizi dugu. Krisi hark ondorio larriak utzi zituen: langabezi tasa izugarria, biztanleriaren galera garrantzitsuak, egoera sozial larria eta hirigintza aldetik basamortuaren antzera geratu zen modu basatian eraikitako herria. Gaur egun ere antzeko egoera baten aurrean aurkitzen garela esaten diguten adierazleak ditugu. Eta honela, Pasai San Pedrok biztanleriaren zahartze tasa handia du eta oso egitura komertzial ahula eta trakziorik gabekoa.

90. hamarkadan Pasaiako Udalak herriko hirigintza planeamenduaren inguruko hausnarketa prozesua hasten du. Eztabaida prozesu horren ondorio nagusi bezala garai horretan modan zegoen hirigintza "erraza"ren hazkunde eredua baztertzea erabakitzen da eta beste eredu baten aldeko hautua egiten da, hau da, herritarra, hirigintza horren subjektu eta ardatz gisa hartuz, herriaren eraldaketaren oinarria izango da.

Urrats garrantzitsuak ematen hasten dira:

- Lehen Plan Estrategikoa egiten da eta horren ondorio gisa OARSOALDEA Garapen Agentzia sortzen da. Gizarte mailan oso nabariak dira garai horretan azken hamarkadetan oinarria izan zen ehun produktiboak bizi zuen krisi latzak bere ibilbidean uzten joan den gizarte desestrukturazioaren ondorioak.
- Bizi berritzen eta berreskuratze sozio-urbanistikoa helburu bezala jartzen da. Alde

Durante muchos años, la ciudadanía de Pasaia San Pedro ha venido luchando para conseguir eliminar los usos industriales de la zona de Ondartxo.

La situación socioeconómica de Pasaia en la década de los 80 y 90 era muy preocupante. Hoy en día, con la crisis industrial y pesquera brutal que padecemos nos encontramos ante una situación similar. Las consecuencias de aquella crisis se tradujeron en cifras de paro enorme, pérdida alarmante de población, situación social preocupante y un desierto socio-urbanístico como consecuencia del desarrollismo atroz padecido. Hoy en día seguimos contando con indicadores que reflejan similares situaciones. Así, por ejemplo en Pasai San Pedro, se refleja en un índice alto de envejecimiento de la población y una débil estructura comercial atractiva.

A comienzos de la década de los 90 se inicia un período de reflexión en el Ayuntamiento de Pasaia sobre el planeamiento urbanístico. Como conclusión del proceso de debate se abandona la idea de crecimiento con un urbanismo "fácil" que imperaba en la época y se opta por otro modelo, más austero, pero que fija los objetivos a perseguir contemplando a la ciudadanía como sujeto y eje central en el que debe de pivotar la transformación del municipio.

Se comienzan a dar pasos importantes:

- Se elabora el primer Plan Estratégico que culmina con la creación de la Agencia de Desarrollo comarcal OARSOALDEA. A nivel social son patentes en esa época las consecuencias de la desestructuración social que ha ido dejando tras de sí la enorme crisis que soporta todo el tejido productivo que había dominado durante las últimas décadas.
- Se plantea como objetivo la recuperación y regeneración socio-urbanística. Se plantea, por

batetik galdutako eta abandonaturiko guneak berreskuratzea planteatzen da herritarren bizi kalitatea hobetzeko eta bestetik ekonomia sustatzeko motoreak izan daitezkeenak bilatzea, batetik bertako biztanleria finkatu eta bere eremu naturaletik ez ateratzeko eta bestetik inguruko herrietakoak erakartzeko.

- Ildo horretan, San Pedrok bere biztanleriaren gutxitzea eta zahartzea gelditu egin behar du eta horretarako idazten da Hirigune Historikoak Biziberritzeko Plan Berezia; bere gune batzuk berreskuratu eta urbanizatu behar ditu ere herritarren bizi kalitatea hobetzeko asmoarekin.
- Pasaiako Planeamenduko Arau Subsidiarioen onarpena.

Duela zazpi urte baino gehiago Gipuzkoako Foru Aldundiak, Askorreta Ontziola enpresak Ondartxoko lurretan zeukan kontzesioa erreskatatu egin zuen; erreskate honek haize berriak ekarri zituen behingoz. Diputazioko Kultura sailak hartu zuen kontzesioaren ardura eta honek aukera berriak ireki zituen, Pasaiako Udalak eta Oarsoaldea osatzen duten beste hiru udalek ontzat jo zituzten aukerak hain zuzen ere, bertan, herritarrek eskatzen zituzten beste hainbatekin batera, Pasaiako Badia Parke Ludiko Kulturalaren parte zen ontzi tradizionaletako Ontziola kokatzeko.

Gauzak honela, Eskualdeko Garapen Agentziak eta Diputazioak lankidetza hitzarmena sinatu zuten, non Diputazioak Ontziola kokatzeko instalazioen parte baten erabilera lagatzen zuen eta besteetan bereak dituen ontziak jarriko zituen, konpontzeko eta erakusteko helburuarekin.

Jada 2.004. urtean eta aurretik sinatuta zegoen hitzarmenaren kontra, Gipuzkoako Diputazioak Ondartxoko gunerako erabilera alternatibo batzuk planteatzen hasten da; erabilera hauek, gainera, eremuaren errekuperazioarekin baino, beste interes batzuen mesedetan eginikoak dira, zehatz-mehatz, itsas espezie bateko alebinak hazteko analisiak egiteko enpresa baten asmoekin, nahiz eta kirol ekipamendu batez hornitzen zuten.

Denbora berean, eta herritarren parte-hartzea sustatzeko herri iniziatiba moduan, San Pedroko herritarrek San Pedroko Quoruma Batzordea sortzen dute eta Pasaiako Udalean Ondartxoko hondartza berreskuratzerako mozio bat aurkezten dute, aho batez onartu ez bazen

una parte, recuperar aquellos espacios perdidos y abandonados para mejorar la calidad de vida de los y las vecinas y, por otra, buscar elementos de motor económico que por una parte fijen a la población para que no salga de su entorno y que por otro, atraigan a personas de los pueblos de alrededor.

- En esa línea, San Pedro debe de frenar el despoblamiento y envejecimiento de su Casco Histórico para lo que se redacta el Plan Especial de Cascos Históricos, y debe de encarar asimismo unos procesos de reurbanización y de recuperación de espacios obsoletos que aumenten la calidad de vida.
- Aprobación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Pasaia.

Hace más de siete años la Diputación Foral de Gipuzkoa rescató la concesión que la empresa Astilleros Ascorreta poseía en terrenos de Ondartxo, rescate que supuso un soplo de aire fresco. Tras la adscripción de la concesión al departamento de Cultura de la propia Diputación, se abrieron oportunidades que el Ayuntamiento de Pasaia, junto con los otros tres que conforman Oarsoaldea, consideró adecuadas para ubicar, junto con aquellas que la ciudadanía requiriera, el Parque Lúdico Cultural Bahía de Pasaia: el astillero tradicional Ontziola.

De esta manera, la Agencia de Desarrollo Comarcal y la Diputación firmaron un convenio de colaboración mediante el cual, la Diputación cedía el uso de parte de las instalaciones para ubicar Ontziola y se reservaba espacios para alojar sus propias embarcaciones para su reparación y exposición pública.

En el año 2004, e inclumpliéndose el convenio suscrito, la Diputación de Gipuzkoa propone unos usos alternativos para la zona de Ondartxo que en nada coinciden con los objetivos de recuperación de la zona, como la implantación de una empresa para el análisis de la cría de alevines de cierta especie marina, a lo que se añadía un equipamiento deportivo.

Al mismo tiempo, y dentro de iniciativas ciudadanas de participación, la propia ciudadanía de San Pedro articula una Comisión Vecinal Quórum de San Pedro y presenta una Moción en el Ayuntamiento de Pasaia relativa a la recuperación de la playa de Ondartxo. Moción que, aunque no

ere, gehiengoz onartzen dena.

Azken hamarkadan hirigintza ikuspegitik degradatua dagoen eremu honetan jarduteko ekintzak eta akordio ugari gauzatu dira. Ekintza hauek, alde batetik, Udalak berak bultzatu dituen hirigintza ekintzak izan dira eta, bestetik, Gipuzkoako Diputazioak eta Udalak Pasaiako hiri bizi berritzerako sinatu zuten hitzarmenaren itzalean garatu direnak. Pasai San Pedron honako hauek garatu dira:

- Herriko Plaza eta herriko sarrera urbanizatzen dira.
- Velascon orain gutxi hasi den hirigintza operazioa zehazten da.
- Torrea eta Torreatzea urbanizatzen da.
- Zamateteko auzoa urbanizatzen da.
- Pablo Enea eta Pobladoko guneak urbanizatzen dira.
- San Pedro kalean azpiegiturak sartu eta urbanizatzen da.
- San Pedroko Alkateordetza osoa berregiten da eta bertan udal liburutegia kokatzen da.
- Frontoia eta Salbioko eremuak urbanizatzen dira.

Modu berean, eta gure herriaren eraikuntzan herritarren parte-hartzea egia bihurtzeko norabide horretan, Pasaiako Udalak San Pedroko arrantza lonjaren inguruko Informazio eta Elkarrizketa Topaketa antolatu zuen. Topagune horretako ondorioak momentu honetan San Pedroko Lonja berriko proiektua idazten ari den honetan herritar posizionamendua defendatzeko baliagarriak izaten ari dira.

Lehen aipatu dugun Diputazioa eta Udalaren artean sinaturiko hitzarmenean, Udalak Ondartxoko ekipamendua eraikitzeko proiektua idazteko ekintza sartu zuen. Bertan ontzi tradizionaletako Ontziola kokatzeko asmoa agertzen da eta kokagune natural hori, inguruan duen ibarrarekin batera, herritarren aisialdirako errekuperatzea ere.

Proiektua idatziko duen ekipoa kontratatu aurretik, Udala eta herritarren artean eraikitzen jarraitzeko dugun konpromiso horretatik abiatuta, San Pedroko herritarren ikuspegitik eremu eta ekipamendu horrek zein helburu eta proposamen jaso behar dituen zehazteko prozesu bat antolatuko dugu.

contó con la aprobación unánime, fue aprobada.

Durante la última década han sido varias las acciones y acuerdos encaminados a actuar en esta zona degradada urbanísticamente. Acciones propias del urbanismo impulsado por el Ayuntamiento y otras desarrolladas al amparo del Convenio firmado entre la Diputación de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Pasaia para la regeneración urbana de Pasaia. En Pasai San Pedro se han desarrollado las siguientes acciones:

- Se urbaniza la entrada al pueblo y la Herriko Plaza.
- Se concreta la operación a desarrollar en Velasco, que ya ha comenzado.
- Se urbaniza la Torre y Torreatze
- Se urbaniza el barrio de Zamatete
- Se urbanizan las zonas altas de Pablo-Enea y Poblado
- Se soterran las infraestructuras en la C/ San Pedro y se urbaniza
- Se remodela por completo la Tenencia de Alcaldía y se ubica la bibioteca municipal.
- Se urbaniza la zona del Frontón y Salbio

Asimismo y en la dirección de hacer realidad la participación de la ciudadanía en los asuntos de la construcción de su pueblo, el Ayuntamiento de Pasaia organizó el Encuentro de Información y Diálogo sobre la Lonja Pesquera en San Pedro. Las conclusiones de ese Encuentro están sirviendo en estos momentos para defender el posicionamiento ciudadano en el proceso de redacción del proyecto para la nueva Lonja de San Pedro.

En el marco del convenio suscrito entre el Ayuntamiento y la Diputación, que ya hemos mencionado, el Ayuntamiento incluyó la acción para la redacción del proyecto constructivo del equipamiento de Ondartxo. Se pretende ubicar en el mismo el astillero de embarcaciones tradicionales Ontziola, así como recuperar ese espacio, para el ocio y el esparcimiento, complementándolo con los espacios que se sitúan en la vaguada.

Con carácter previo a la contratación del equipo redactor del proyecto, y desde ese compromiso de seguir construyendo conjuntamente entre la ciudadanía y el Ayuntamiento, vamos a organizar un proceso que defina, desde la visión de la ciudadanía de San Pedro, los objetivos y propuestas que deben recoger esta zona y este

equipamiento.

# 2.- Topaketaren nondik norakoak Características del encuentro

## 2.1. Helburu Orokorrak - Objetivos Generales

- Elkarrekin -herritarren artean eta baita Udalarekin ere- lan egiteko gunea sortzea.
- Herritarren parte-hartzea areagotzea guztien erronka izatea eta berau garatzeko konpromiso indibidual eta kolektiboak hartzea.
- Gure herriko errealitate sozio urbanistikoa, lur eremu honen egoera eta hasierako oinarriak, azken urteetan egindako planteamendu desberdinak ere ezagutzea eta egoera herritarrek duten ikuspuntutik aztertzea.
- Azterketa horretatik abiatuta Ondartxo gunerako erabilpenak diseinatzea.
- Adostutako proposamena Udalari helaraztea, honek bere baitan aztertu eta erabaki dezan Ondartxorako egiten den proiektuan kontutan har dezan.

- Crear espacios para trabajar conjuntamente, entre los y las vecinas y el Ayuntamiento.
- Lograr que fomentar la participación sea reto para todos y todas y adoptar compromisos individuales y colectivos para que así sea.
- Conocer la realidad socio urbanística de nuestro pueblo, la situación y los parámetros de partida de este territorio, así como los diferentes planteamientos realizados en los últimos años y analizar la situación desde la perspectiva de la ciudadanía.
- Partiendo de esos análisis, diseñar los usos del espacio de la zona de Ondartxo.
- Elevar la propuesta consensuada al Ayuntamiento para su debate y decisión en la elaboración del anteproyecto para la zona de Ondartxo.

## 2.2. Oinarriak – Bases

Prozesuan aintzat hartuko ditugun oinarriak edo printzipioak hauek izango dira:

⇒ ***Malgutasuna:*** Prozesu hau pertsonen arteko lanean oinarrituko denez, aurreikusitako lanak eta epeak moldagarriak izango dira. Bidean parte hartzaileek beharrezko jotzen dituzten aldaketak proposatuko dituzte prozesua egokitzen joateko.

⇒ ***Prozesu hezigarria:*** Partaidetza-prozesu hau eraldaketa-prozesu bat izango da, eta hortaz, eraldaketa-prozesu guztiak bezala, heziko gaituena.

Prozesuaren emaitza alde batera, prozesuak berak protagonismo berezia izango du eta parte hartzen duten guztiek (norbanako, talde eta erakundeek) ikasiko dute elkarrengandik, batzuek besteengandik jasoko baitute, eta denon artean elikatuko

Las bases o principios que tomaremos en consideración a lo largo del proceso serán las siguientes:

⇒ ***Flexibilidad:*** dado que la base es el trabajo con personas, tanto las tareas como los plazos serán adaptables. A lo largo del proceso los y las participantes propondrán aquellos cambios que se consideren convenientes para acomodar el proceso.

⇒ ***Proceso educativo:*** Este proceso de participación es un proceso de transformación, es decir, supondrá, como cualquier proceso de transformación un proceso educativo.

Con independencia del resultado el propio proceso tendrá un protagonismo especial y quienes participen (individuos, grupos, instituciones) aprenderán del proceso, recogerán unos de otros y juntos alimentarán el conocimiento común.

baitute euren ezagutza.

⇒ ***Hizkuntzen erabilera***: Pasaian euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak dira.

Beraz, bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera egongo da (ahozkoan eta idatzizkoan) eta euskararen erabilerari lehentasuna emango zaio lan-taldeen funtzionamenduan zein komunikazio-mailan.

⇒ ***Emakumeen eta gizonen berdintasuna***: Gai honetan ere, baditu Pasaiako Udalak erreferentziak eta kontuan hartuko ditugu.

Nola hartuko da kontuan proiektu honetan **berdintasunaren gaia**?

Parte hartzaileei dagokienez: prozesuaren egitura edo talde guztietan parte hartuko duten emakume eta gizon-kopurua parekoa izan dadin saiatuko gara.

Landuko diren gaien aldetik: emakume eta gizonen interesak, nahiak, ikuspegiak, arazoak, proposamenak, irtenbideak... aintzat hartuko dira.

⇒ ***Tratamiento lingüístico:*** en Pasaia el Euskara y el castellano son lenguas oficiales.

Por tanto tendremos la oportunidad de utilizar ambas (tanto oral como escrito) y se otorgará preferencia al uso del Euskara tanto en el funcionamiento de los grupos como a nivel comunicativo.

⇒ ***Igualdad entre mujeres y hombres:*** En este asunto el ayuntamiento de Pasaia también tiene referencias y estas serán la base que tomaremos en consideración.

¿Cómo vamos a tener en cuenta el **tema de la igualdad** en este proyecto?

En cuantos a las personas participantes: en la estructura del proceso y en los grupos de participación se tenderá a que el número de hombres y mujeres sea parejo.

En cuanto a los temas a tratar: se tomarán en consideración los intereses, deseos, perspectivas, problemática, propuestas, soluciones tanto de hombres como de mujeres.

## *3.Prozesuaren garapena – Desarrollo del proceso*

Prozesuak bi saio izango ditu:

- Lehen saioa gure herriko errealitate sozio urbanistikoa, lurralde horren egoera, aurrekariak eta hasierako parametroak ezagutzeko baliatuko da.
- Bigarren saioan egoera herritarrek, euren ikuspegitik aztertuko dute eta analisi horretatik abiatuta Ondartxoko eremu horretan beharrezkoak iruditzen zaizkion erabilerak planteatuko ditu, hauek proiektua idatziko duen ekipoarentzat oinarria izan daitezen.

Prozesuaren garapenerako, eduki metodologikoen zuzendaritza eta garapenerako eta dinamizaziorako, orain arteko prozesuetan izan dugun bezalaxe, kanpoko laguntza izango dugu. Halere, herritarrak honelako dinamiketan inplikatzeko helburuarekin, beste urrats bat eman nahi dugu eta boluntario gisa bi saioetan dinamizazio lanetan ibiliko diren pertsonak izan nahi ditugu.

El proceso se desarrollará en dos sesiones:

- La primera sesión se dedicará a conocer la realidad socio urbanística de nuestro pueblo, la situación y los antecedentes y parámetros de partida de este territorio.
- En la segunda sesión se analizará la situación desde la perspectiva de la ciudadanía y partiendo de esos análisis, la ciudadanía planteará los usos que entiende necesarios que se deben recoger en el espacio de la zona de Ondartxo para que sirvan de base al equipo redactor del proyecto.

Para el desarrollo del proceso, la dirección del contenido metodológico y su desarrollo y dinamización contaremos con asesoría externa, al igual que en los procesos realizados hasta la fecha, si bien queremos dar un paso más en la implicación de la ciudadanía en estos procesos y plantearemos colaboraciones voluntarias de personas en la dinamización de las dos sesiones.

## 3.1. Bukaerako urratsa – Fase final

- Prozesuaren balioespena egin: baliagarritasuna, ikasitakoa, aurrera begirako lan-ildoak, etab.
- Prozesuari buruzko txostena landu
- Komunikazio-ekintzak amaitu. Parte hartu duten herritarrei bereziki, eta oro har Pasaiako herritar guztiei proiektua zertan gelditu den adierazi, udalaren erabakien berri eman.

- Realizar la valoración del proceso: validez, aprendizaje, ejes de trabajo futuro, etc.
- Realizar el informe del proceso.
- Finalizar las acciones de comunicación. Comunicar a la población y en especial a quienes hayan participado en el proceso los resultados del mismo y los acuerdos y desarrollos del proyecto.

## 3.2. Datak eta lekuak – Fechas y lugares

2.010eko Abenduaren 11a, larunbata

2.010eko Abenduaren 18a, larunbata

Bi saio hauek San Pedroko Ikastolan eginen dira.

Sábado 11 de diciembre de 2.010

Sábado 18 de diciembre de 2.010

Las dos sesiones se realizarán las aulas de la Ikastola de San Pedro.

## 3.3. Komunikazio plana - Plan de comunicación

Herritarren arteko topaketa hauen oinarria eta ardatza komunikazioa, ezagutza eta informazioa da. Horregatik komunikazio plan bat marraztuko dugu helarazi nahi dugun mezua egoki jakinarazteko eta parte hartzera bultzatuko gaituena.

Horretarako Pasaiako Udalak bitarteko hauek erabiliko ditu:

1. Prozesua azaltzen duen gutun-diptikoa gutunontzietan sartzea.
2. Topagunean parte hartzera gonbidatzen duten kartelak.
3. Prozesuari buruzko informazioa udalaren web orriaren bitartez.
4. Ekarpenak egiteko bideak irekiko dira pasaialanduz@pasaia.net-etik.
5. Topagunearen ondorioak jasoko dituen argibide-eskuorria.

La base y el eje central de este Proceso de participación Ciudadana es la comunicación, el conocimiento y la información. Por esa razón estableceremos un plan de comunicación que nos ayude a trasladar correctamente el mensaje, un plan que nos anime a participar.

Para ello el Ayuntamiento de Pasaia utilizará los siguientes medios y canales:

1. Carta – folleto explicativo del proceso y buzoneo del mismo.
2. Carteles llamando a la participación en el encuentro.
3. Información del proceso a través de la web municipal.
4. Apertura de canales de aportación desde pasaialanduz@pasaia.net.
5. Folleto informativo de las conclusiones del encuentro.